{mosmap width='638'|height='250'|lat='31.551623'|lon='35.108185'|zoom='4'|
zoomType='Large'|zoomNew='0'|mapType='Satellite'|
showMaptype='1'|overview='0'|text='Hebron, Palestina'|lang=''}
[Koldo Sagasti] Atzo Bethlehemen eman genuen gaua, esanahi mistikoz beteriko hiria eta garai batean behintzat milioika turista erlijiosoren helmuga. Jerusalemetik 5 kilometro eskasera izanagatik eta kristauen erlijioaren sorburua izanagatik, lasaitasun giroa sumatzen da hiri zaharreko karriketan. Bethelhem zein inguruko herrixkak inguratzen dituen porlanezko harresiagatik izan ez balitz, inork gutxik esango zukeen okupatutako hiri batean geundela. Halaxe kontatu zigun Victor Bartaseh-ek, Bethlehemeko PFLP alderdi ezkertiarreko alkateak, harekin izandako bileran, bere hiriko arazoen inguruan mintzatu zitzaigunean. Olibondo egurraren artisaugintzaz eta oliba olioaz aparte, turismoa izan da historikoki kristauen jainkoaren ustezko jaioterriko diru iturri nagusia, egun aldiz, harresiaren bidez hiria ghetto bat bihurtu izanaren ondorioz, turista-talde antolatu apurrek sartu-irten bat egiten dute jaiotzaren elizan eta segituan bueltan eramaten dituzte Jerusalemera. Ez dira tenplua inguratzen duen plazatik baino haratago mugitzen, ez dute gaurik ematen bertan, eta ondorioz ez dute sosik uzten herrian. Aida errefuxiatuen kanpamendura bisita bat eginda eta bertako eraikin gain-populuetako terraza batetik begiratuta, errazago ulertzen da itxiera fisiko eta ekonomiko honen zergatia.
Handik Bethlehem eta inguruko herriak espetxe erraldoi bat bailiran inguratzen dituen porlanezko harresia ikusten da; paretaz beste aldera belendarrei lapurtutako olibondo sailak; inguruko muinoetako tontorretan koloniak, judutarrentzako urbanizazio esklusiboak, errepide sare eta azpiegitura propioak dituztenak; eta pixka bat haratago Jerusalem, horren gertu eta aldi berean horren urrun. Bestalde, eta traba fisikoak eta ekonomikoak alde batera utzita, normaltasun giroa sumatzen da Bethlehemen, apartheid-a atzera bueltarik gabeko errealitate normalizatua izango balitz bezala. Hango kale lasaietan zabiltzala garagardo bat edatera gera zaitezke han-hemenka, edo udan antolatzen dituzten ekitaldi kultural ugariez gozatzeko tartea ere har dezakezu. Atzo, hain zuzen, Khalas Rock & Roll, taldearen kontzertuan izan ginen. Sekulan ezingo nukeen imajinatu Palestinan rock kontzertu bat ikus nezakeenik.
Bethlehemetik hegoaldera jo eta Hebronera abiatu gara. Izugarria da ikustea nola aldatu daitekeen gizartea kilometro gutxitan, hogei minutu eskasetan, izan ere, harresiak eragindako isolamenduaren ondorioz, Zisjordaniako hiri-ghetto bakoitzean errealitate soziologiko ezberdina garatzen ari da. Bethlehem ez bezala, Hebron hiri kontserbadorea eta erlijiosoa da. Hamas, alderdi islamiarra, jaun eta jabe den kale hauetan zaila da ikustea buruan zapirik ez daraman emakumerik, eta halaber, asko dira burutik behera estalita doazenak. Detaile deigarri hau, beraz, erlijioaren arauei estu lotutako gizarte baten isla estetikoa baino ez da. Gerora kontatu digutenez, kanpoko munduarekiko loturak apurtze horrek usadio erlijioso atzerakoienei heltzera bultzatu du gizartea eta aspaldian ustez desagertutako praktika batzuk, “ohorezko hilketak” kasu, agertzen ari dira berriro. Atzerakada horren biktima nagusia, beti bezala, emakumea.

Hebronen alde zaharreko etxeak berreraikitzen diharduen komitearekin bildu gara hor bertan duten egoitzan. Kontatu digutenaren arabera, Osloko akordioen ondorioz, 1997an estatus berezi bat ezarri zioten Hebrongo hiriguneari. Hau ere esanahi historiko eta erlijioso handiko hiria da, izan ere, hango mezkita azpian Abraham omen dago hilobiratuta, hiru erlijio monoteistetako patriarka. Zama historiko hori izan zen, hain zuzen ere, Estatu Batuetako fanatiko erlijioso judu asko erakarri zituena, nonbait leku santua birkonkistatzera. Egun 400 kolono sionista daude alde zaharrean eta 1500 soldadu horiek babesteko. 97an ezarritako

estatusaren ondorioz, beraz, bi zatitan banatu zuten hirigunea: H1 eta H2. H1, mendebaldeko zatia, da bertako biztanleei zegokiena. Ibrahimen mezkita esanguratsua, ordea, H2 zatian gelditu zen, alegia, New York-eko Brooklin auzotik etorritako kolonoei egokitutakoan. Bost kolonia daude orotara Hebrongo alde zaharrean sakabanatutako eremu itxietan. Horrez gain, kolonietatik kanpo ere, kolono zein soldaduek (askotan soldaduak berauek ere kolonoak dira) hiri zaharreko etxeetan sartu eta goiko pisuak okupatzen dituzte. Halakoetan moobing bortitza ezartzen diete beheko pisuetako arabiarrei etxetik alde egin dezaten; leihotik behera txiza, kaka eta egin beharreko guztiak egiten dizkiete eguneroko bizimodua jasanezin bilakatu arte. Bortizkeri horren lekuko dira hiriko karrika estu zaharrenak. Hiri mamu bat bailitzan, alde zaharreko kaleak hutsik daude gaur egun, dendak itxita. Goiko partean, halaber, alanbrezko sare handi bat hedatu dute bertakoek, karrikako alde batetik bestera, kolonoek leihotik behera jaurtitzen dieten zaborra jasotzeko. Antzinako paretetan ere sionistek gaueroko irtenaldientan egindako pintadak daude ikusgai. Horietako batek zera dio: «Gass the arabs. jdl» (Arabiarrak gaseatu. Judish Defense League), eta graffitiak pentsarazi dit nondik ote datorkien sionistei jendea gaseatzeko zaletasun hori.

Alde Zaharrean barrena paseoan gabiltzala Umsaid familiaren etxera gonbidatu gaituzte. Umsaidarrak kolonoek eta postu militarrek osatutako armiarmaren sarean harrapatuta gelditu diren familietako bat da. Etxerako sarrera burnizko atetzar batez moztutako karrika ilun batean dago. Armadak ezarri zuen koloniarako sarbidea mozteko. Bizilekura sartu, harrizko eskailera estuan gora egin eta etxeko nagusiak egin digu harrera. Keinu adeitsu batez terrazara gonbidatu gaitu. Azoteara sartzearekin batera pozaren pozez dagoen etxeko txikienak ondoko gela bat erakutsi digu. Paretak guztiz belztuta daude. Iragan astean kolonoak leihotik sartu eta su eman omen zioten bizilekuari. Haurrak ez dirudi burutik oso sano, kontatu digutenez tratamendu psikologikoan dago presio horren menpean bizitzeak eragin dion trauma tratatze aldera. Terrazatik Hebrongo alde zaharreko teilatuak ikusten dira, eta Umsaidarren teilatuaren pare-parean soldadu israeldarren postu batek etxeko lasaitasuna mehatxatzen du. Ingurura begiratu eta hogei metro eskasera beste postu bat, kamuflaje sarea, harea zakuak, eta bestelako gerra apaingarriez hornituta. Handik zelatan hortzetaraino armatutako soldadu israeldarrak. Familiako seme zaharrenak, ingeles apur bat dakien bakarrak, azotean eta okupatzaile mesfidatien begiradapean eserarazi gaitu. Alabetako bat bisitariok ikusi orduko izutu eta korrika atera da buru-zapia janztera, eta handik bi minutura terrazara atera da mentadun tez betetako erretilua eskuetan. Eskaini digu adeitsu. Te beroa dastatzen ari ginela ama atera da eta eskua lotsaz luzatuta taldean eseri da. Hithan du izena. Itxuragatik 50 urte inguru zituela esango nukeen, hark berriz, 72an jaioa zela esan digu, ni baino bi urte eskas zaharragoa. Semearen laguntzaz kolono eta soldaduen mehatxupeko bizitzaren gorabeherak kontatzeari ekin dio. Gauez zein egunez etengabeko erasoak, irainak, gas jaurtitzeak, etxeratzeko aginduak… teilatu gaineko ur-edukiontzia ere erakutsi digu, tiroz guztiz zulatuta. Hithanek bi ume galdu ditu azken urteotan. Lehenengoa haurdun zegoela kolonoek etxe barrura jaurti zioten gasaren ondorioz, eta bigarrena moobing bortitz honek eragindako estres traumatikoagatik. Hala eta guztiz ere, esan digu ez dutela familiaren etxetik alde egingo, ez daukate-eta nora joan. Hiru goilarakada azukre izanda ere, Umsaidareenean hartutakoa inoiz hartu dudan terik mikatzena izan da.

Altxatu garenean seme zaharrena CD sorta batekin etorri zaigu. Spider Web filma da, Umsaid familiaren istorioa kontatzen duen luzemetraia. Nik etxean daukat, eta hamaika aldiz ikusita,

baina, hala ere, bere adeitasunari erantzute aldera, ale bat hartu diogu. Berak, baina, ez digu inolaz ere eskaini dizkiogun txanponak onartu nahi izan. Burumakur eta irribarreari eusteko ahalegin alferretan agurtu ditugu gure anfitrioiak. Berriro alde zaharrean murgildu eta atzean utzi ditugu armiarma-saredun karrikak. 15 kilometro eskas iparralderago bestelako mundu bat dugu zain, Bethlehem, bidaiari askok eta askok ezagutuko duten Palestinako azken muga. Hor, Zisjordanian ekoiztutako Taibeh garagardo batez, saiatuko gara Hebronen hartutako tragoaren mingostasuna apaltzen.